

General Medical Council (Gmc)-en gutuna, Brexit-a dela-eta

Europako lankide agurgarriak:

Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzea

Erresuma Batua Europako Batasunetik (EB) joan zen astean atera ondoren idazten dizut.

Ziurtatu nahi dizut, gertaera politikoak gorabehera, konprometituta jarraitzen dugula zurekin estuki lan egiten pazientearen segurtasuna sustatzeko eta Europako medikuek Erresuma Batura lanera etortzen jarraitu ahal izatea bermatzeko.

Baieztatu nahi nuke:

1 EEKko (Europako Esparru Ekonomikoa) eta Suitzako medikuen erregistroa GMCn erregistratuta badago, EBtik irteteak ez du eraginik izango, eta ez da beharrezkoa izango lan-kontratuak aldatzea. Horrek esan nahi du langileek ez dutela berriro beren egungo lanpostuak eskatu beharko irteeraren ondoren.

2 Ez da aldaketarik egongo trantsizio-aldian EEKko eskatzaile berrientzako erregistro medikoa eskatzeko moduan. Trantsizio-aldia 2020ko abenduaren 31n amaituko da.

GMCK eta Erresuma Batuko osasun-sistemek Europako gainerako herrialdeetako medikuek herrialde horretako arretan eta tratamenduan egin duten eta egiten jarraitzen duten ekarpena balioesten dute.

Trantsizio-aldian, Europar Batasunaren Barne Merkatuaren Informaziorako alerta-mekanismoaren (IMI) bidez Erresuma Batuko ekitalditik murriztu edo baja eman zaien medikuen datuak zuekin partekatzen jarraituko dugu. Espero dugu gurekin informazio bera partekatzen jarraituko duzuela.

Lankidetza estuan lan egiten jarraitzea espero dugu, bai alde bietatik, bai kide garen Europako sareen bidez. Izugarri baloratzen dugu gure elkarlana, eta espero dugu lan estu horrek jarraitzea.

Adeitasunez,

Charlie Massey

Zuzendari exekutiboa eta Erregistrokoa

¹ Itzultzailearen oharra: Europako Esparru Ekonomikoa (EEE) EBko estatu kideak eta EFTAko lau estatuetatik hiru biltzen ditu (Islandia, Liechtenstein eta Norvegia)